

# begira



42. zk.  
2018ko martxoa



## News Korporatibo berria



aurrez aurre:

AITOR GALDOS. Pertsonen zuzendaria ULMA Constructionen




ULMA Taldeko beste talentuak:

JON URZELAI. Mahasti artean...



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <  
ULMA Conveyor Componentsek  
**arrabol motorizatu berriak** aurkeztu ditu  
AEBetan



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <  
Etxeak **zaharberritu** dira Alcoyn,  
ULMAk **neurrira egindako pieza**  
**aurrefabrikatuak** erabiliz

ALBISTEAK >  
ETA GAURKOTASUNA  
ULMA Orga Jasotzaileak  
**Gurutze Gorriarekin**



> ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK  
**Jon Urzelai.** Mahasti artean...



> AURREZ AURRE  
**Aitor Galdos.** Pertsonen zuzendaria ULMA  
Constructionen

## 2018ko martxoa

### 4 albisteak eta gaurkotasuna Teknologia aurreratua daramaten ULMA Agricola berotegiak Mexikon

ULMA Packagingek nobedade  
interesgarriak aurkeztu zituen  
Berlingo Fruit Logisticaren azken  
edizioan

Enpresagintzako ikasleak ULMA  
Taldearen instalazioetan bisitari

Valentziako Arteen eta Zientzien  
Hirian dagoen Agora eraikinaren  
birgaikuntza

PICK&PLACE europar partzuergoa  
ULMA Handling Systemsen

ULMA Pipingek ONGC indiar  
erraldoiaren homologazioa eskuratu  
du

### 16 ULMA Taldeko beste talentuak Jon Urzelai. Mahasti artean...

### 18 aurrez aurre Aitor Galdos. Pertsonen zuzendari ULMA Constructionen

### 20 erreportajea News korporatibo berria. ULMAk zerbait esan nahi dizu

### 22 ULMA Fundazioa

### 24 agenda eta iradokizunak



#### ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.  
Garagaltza auzoa, 51  
20560 ONATI

Tel.: 943 25 03 00

#### ZUZENDARITZA:

Carlos Sarabia  
csarabia@ulma.com

#### EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,  
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,  
Irene Moreno, Edurne Unzueta,  
Nerea Burgoa, Jesús Mari Eguiluz eta  
Carlos Sarabia.

#### DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Igone Basterra  
ibasterra@ulma.com

#### INPRIMATEGIA:

Gertu S. L.



Aldizkari hau paper  
birziklatuan inprimatu da.  
**#keinujasangarria**



## ULMA AGRICOLA

### Teknologia aurreratua daramaten ULMA Agricola berotegiak Mexikon

GERO ETA EKOIZLE GEHIAGO DABILTZA BEREN BEROTEGIEN TEKNOLOGIA MAILA HANDITU NAHIAN.

ULMA Agricolak ia 5 hektareako proiektu bat instalatu du oraintsu Mexikon tomateak landatzeko. Mexiko dugu, hain zuzen, munduko herrialde ekoizleenen artean hamargarrena eta munduko esportatzaile nagusia.

Tomatea landatzeko berotegiaren erabilera oso zabaldua dago Mexikon, urtarotik kanpo landatzeko aukera ematen duelako, kalitatea homogeenagoa delako eta metro karratuko errentagarritasuna handitu egiten delako.

Mexikoko nekazaritza babestuan teknologia ez dago oraindik oso zabaldua, baina etorkizunera begira aukera politik ikusten dira. Berotegiaren merkaturak, Mexikon, teknologia maila ertain eta handiko merkatu baterantz ari da aldatzen, eta gero eta ekoizle gehiago dabilta beren berotegiaren teknologia maila handitu nahian.

Mexikon amaitu berri dugun instalazioetako bat elkarri konektatutako bi moduluz osatzen da, guztira 5 hektareako eremu bat estaliz. Proiektu hori egiteko erabili den egitura G12.8 multikapera modeloa izan da, kanal azpian 6 metroko altuera hartzen duena.

**Teknologia aurreratuko berotegi honen instalazioa osatzeko, aipagarriak dira ezarri diren ekipamenduak; ganbera puzgarri bikoitza bai sabaian bai perimetroan, birzirkulatuzaileak, aire bero bidezko berokuntza eta ureztatze hidroponikoko sistema, dena ere erabat automatizatuta.**



## ULMA CONSTRUCTION

### ULMAk Qatarreko Lusail Boulevard tunelaren eraikuntzan parte hartu du bere banatzaile DELMONen eskutik



TUNELA 655 M LUZE ETA 45 M ZABAL DA, AIRE ZABALEKOA ETA HIRU HUTSARTEDUNA. ERDIKO HUTSARTEA TREN TRAFIKORAKO DA ETA BINA LINEA DAUZKA NORABIDE BAKOITZEAN.

ULMA Constructionen eta Ekialde Hurbilean berak duen banatzaile DELMONen arteko elkarlan estua funtsezkoa izan da proiektu honetan enkofratu integral eta errentagarriko soluzioa eskaintzeko.

Berez, proiektua da tunel bat aire zabalean eraikitzea, eta instalazioak eta zerbitzuak ere eraikitzea A3 bidean. Tunelak 665 m-ko luzera dauka eta 45 m-ko zabalera, hiru bauekin. Erdiko barea trenen trafikorako da, noranzko bakoitzean bi linearekin. Proiektu honetarako 300.000 m<sup>3</sup> hormigoi behar izan dira.

Tunelaren hormetarako, bezeroak hormigoi geruza bakarria eman nahi zien, baita 13 metroko altueran ere, eta hori erabateko erronka zen. Altuera horietan, hormigoi freskoak presio itzelak eragin ditzake enkofratuaren gainean eta 3,6 km baino gehiago hormigonatu behar zirenez, soluzioa, edozein izanda ere, sendoa izan behar zen, baita muntatzen azkarra eta erraza ere. ENKOFORM V-100 habedun enkofratuarekin, bere osagai guztiak antolatu dira eskatutako

hormigoitze presioak jasateko moduan. Izan ere, **sistemaren erraztasunak bezeroaren espektatibak gainditu ditu, obran etekin handia lortu baita.**

**Lauzak**, 30.000 m<sup>2</sup>-ko area eta 1,8 m-ko lodiera duenak, **9 metroko altuera dauka enkofratu/egitura azpian**. Markodun zinbrien **dorreak egokienak ziren honen moduko erabilerarako**. Gainera, **denbora eta lana aurrezteko, mahaidun enkofratuaren sistemarekin konbinatu da, zeina aurrez muntatzen baita eta bogie batekin mugitu baitaiteke.**

Bezeroaren eskakizunetan pentsatuta, **soluzio hau planteatu zaio, zeinarekin muntaketa eta jartze ondoko desmuntaketa lanak merkeago atera baitzaizkio**. Besteak beste, horregatik aukeratu du bezeroak ULMA Construction eta DELMON binomioa aukera, arrakasta handia edukita.

## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### ULMA Conveyor Components WAAIME Lima sekzioaren (Peru) ongintza afariaren babesle

**WAAIME** Elkarte (Woman's Auxilliary to the American Institute of Mining, Metallurgical and Petroleum Engineers) **SME**ren dibisio bat da (Society for Mining, Metallurgy and Exploration), eta Denverren (Colorado, AEB) kokatuta dagoen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, Perun, Txilen eta Mexikon nazioarteko sekzioak dituena.

Lima sekzioaren (Peru) 64 urteko biziadiaz aurre-graduoko 575 beka baino gehiago, graduondoko 12 eta coachingeko hainbat tailer eman dira; hori guztia, meatzaritza eta energia sektoreko askotariko enpresen ekarpen eskuzabalarri esker. Estatu Batuen 100. urtemuga zela eta, Liman ongintza afari bat egin zen beka programa finantzatzeko fondoak biltzeko helburuarekin.

Ospakizuneari, omenaldia egin zitzaion Peruko Sekzioa zuzendu duten presidente ohi guztiei, Elkartearen buruan eta biziadiaz luzean betetako zeregin inportanteagatik, eta baita WAAIME bekari esker ingeniarietako ikasketak amaitu dituzten azken lizentziatuei ere. ULMA Conveyor Components egitasmo hau babestu eta bertan parte hartzera gonbidatu zuten. ULMAk onartu egin zuen gonbidapena eta ongintza afariaren babesleetako bat izan zen.



## ULMA PACKAGING

### ULMA Packagingek nobedade interesgarriak aurkeztu zituen Berlingo Fruit Logisticaren azken edizioan



**BARAZKI ETA FRUITUEN SEKTORERA ZUZENDUTAKO ONTZIRATZE SOLUZIOAK. FRUITUEN ETA BARAZKIEN BIZITZA ERABILGARRIA LUZATZEN DUTEN TEKNOLOGIEK AROMA ETA ZAPORE GUZTIEI EUSTEN DIETE JAKIOK KONTSUMITU BITARTE.**

ULMA Packagingek nobedade interesgarriak aurkeztu zituen barazki eta fruituen sektorerako zuzendutako ontziratzeko soluzioetan daukan eskaintza zabalaren barruan. Fruituen eta barazkien bizitza erabilgarria luzatzen duten teknologiei esker, jakiok beren aroma eta zapore guztiei eusten diete kontsumitu bitarte.

Nobedaderik inportanteena VTC 840 makina biltzaile bertikalaren eskutik etorri zen; izan ere, makina honek belarrak eta produktua xurgatzeko sistema bat dauka zeina entsaladak ontziratzeko diseinatu den. Sistema burutsu honi esker, produktua ez da tratatuta gelditzen produktu arinen elikadura toberan; izan ere, produktua poltsaren hondoraino eramaten du herrestan, eta hola, era berean, poltsa ixteko orduan arazoak egotea saihesten da.

2018ko Fruit Logistican, Sienna LS BS modeloa ere egon zen ikusgai, sareko film bidez fruta erretilua ontziratzeko flow pack enbase berriarekin. Enbase berri honek fruitu hezurdunek –hala nola mertxikak, nektarinak, okaranak, etab.–

behar duten gehieneko transpirazioa bermatzen du.

Flow pack modeloen arteko beste bat, Atlanta E delakoa izan zen; erretiluen arteko ukipenak ekidinez fruitu delikatuak kalte egitea saihesten duen zinta anitzeko elikagailu automatikoarekin.

Azkenik, TSA 875 P termozigilatzailea aurkeztu zen. Hau ere erretiluan doazen fruituak eta barazkiak ontziratzeko aplikazioetara bideratuta dago, oso errendimendu handikoa da eta minutuan 200 erretilu zigilatze ahalmena dauka, minutuko 25 zikloko kadentziarekin. CMC (Continuous Motion Control) fluxu kontrolaren bitartez, produktibitatea optimizatzen duen erretilu fluxu etengabea bermatzen du.

**SAGARRAK ERRETELURIK GABE ONTZIRATZEA**

ULMA Packagingek sagarretarako aplikazio interesgarri bat ere jarri zuen ikusgai MAF kolaboratzailearen standean: kargatu eta flow pack eran ontziratzeko soluzio automatizatu bat.



## ULMA TALDEA

### Enpresagintzako ikasleak ULMA Taldearen instalazioetan bisitari

Joan den otsailean, MONDRAGON Unibertsitateko Enpresa Zientzietako fakultateko ikasleek ULMA Taldearen instalazioak bisitatu zituzten. Ikasleok myGADE graduak ibilbide akademikoak dira, zeinaren bitartez ikasleak bai ikasgeletan bai enpresetan prestatzen diren. ULMA Taldeak ere, unibertsitatearen sektoretik hurbil dagoen enpresa izanik, programan parte hartzen du.

Kontuan hartuta publiko gaztea genuela bisitan, ULMA Taldeak hitzaldi mota berri baten alde egin zuen. Txapelketa txiki bat antolatu genuen, eta horren bidez, ikasleek modu atsegin eta parte hartzailean ezagutu ahal izan zuten ULMA. 6ko taldetan banatuta, ikasleek ULMArekin lotutako galdera batzuei erantzun behar izan zieten; galdera bakoitzaren ondoren erantzun zuzena eman eta asmatzen zuten taldeak puntu bat lortzen zuten. Azkenean,

puntu gehien eskuratu zuten taldeak saria jaso zuten.

Bisitari amaiera emateko, eztabaida txiki bat sortu zen, ikasleen ahotik jakiteko zein arrazoik eramango lituzkeen enpresa

batera lan egitera eta ez beste batera. Finean, irabazi-irabazi baino ez zuten egin alde biek, esperientzia aberasgarria izan zen-eta bai ULMArentzat bai ikasleentzat.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### Inauguratu dira ULMA Handling Systemsen Donibane Lohitzuneko bulego berriak

Kooperatibaren Donibane Lohitzuneko bulego berriak inauguratzeko, ohorezko aurrezko bat dantzatu zen eta Iñigo Querejeta ULMA Handling Systemseko presidentea eta François Applagnat Baionako Merkataritza Ganberako ordezkariak horretarako jarritako zinta ebaki zuten. Inaugurazio hau ingeniari logistikoaren hedatze prozesuaren barruan sartu behar da, eta azken urteetan frantziar merkatuan izandako hazkundeari zor zaio, zerbitzu "hurbil, azkar eta konfiantzazkoa" ematea helburu.

Gaur egun ingeniariaren merkatu kaptazioa 200 milioi eurokoa da datozen bi urte eta erdirako, eta kopuru hori hainbat enpresarentzat garatzen ari diren proiektuetan gauzatzen da; enpresa horien artean daude, besteak beste, INTERMARCHE, PROCLINIC,



ENTREPINARES, SYSTEME U, ELHIS, CARNICAS TELLO, BRIDOR, PAPELERIA SAMSENG eta RECAMBIOS MARINOS.

Testuinguru horretan sartu beharra dago ULMAk sinatu duen hitzarmen garrantzitsua Frantziako INTERMARCHE Supermerkatu Talde ezaguneko den LUG enpresarekin, automatizazio logistikoko proiektu anbiziotsu bat gauzatzeko. Proiektuak mugari garrantzitsua ezarri du ULMA Handling Systemsen historian, izan ere, horri esker erreferentziazko ingeniari logistikoa bihurtu da Banaketa Handiaren sektorean.

Berriki, ULMA Handling Systemsek Serrisetik Orlyra aldatu du bere operazio logistikoen zentroa, Frantziako eta Europako gune neuralgikoan bere lekua egiteko anbizio handiko maniobra baten barruan.



## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### ULMA Orga Jasotzaileak Gurutze Gorriarekin

ULMAK ELGOIBARKO GURUTZE GORRIAREN LANAREKIN HARTUA DUEN KONPROMISOA ERAKUTSI DU PILATZAILE ELEKTRIKO BAT EROSITA.

Otsail hasieran, ULMA Orga Jasotzaileak negozioak, Debagoienean duen Luis Felipe Lopez agente komertzialaren bitartez, manutentzio ekipamendu bat entregatu zuen Gurutze Gorriaren Elgoibarko egoitzan.

Entrega hartan Julian Rodriguez (tokiko erakundeko presidentea) eta Antonio Rodriguez (kolaboratzaile aktiboa) izan ziren, eta pozik agertu ziren boluntarioen zeregina, ordutik aurrera, baldintza hobetoan beteko zelako. Izan ere, pilotzaile lagungarria izango da elikagaiak eta oinarriko beste produktu batzuk deskargatu, lekuz aldatu eta biltegitzeko, eta zeregin horiek guztiak arintzeko.

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak, aipagai dugun erosketa diruz lagunduz, errekonozitu nahi du Elgoibarko

boluntarioek egiten duten lana, eta laguntzen diharduten antzeko erakundeentzako, baita modu altruista eta lana ere. bizian kolektibo desberdinak babesten eta



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Etxeak zaharberitu dira Alcoyn, ULMAk neurritan egindako pieza aurrefabrikatuak erabiliz

ULMAK, JOSE LUIS ESTEVE ARKITEKTOAREN LANKIDETZAZ, ZAHARBERRITZE HONETAN AZTERKETA ETA DISEINU LANAK EGINDITU; GAINERA, NEURRIRAN EGINDAKO PIEZA AURREFABRIKATUEN HORNIKUNTZAZ ARDURATU DA.

Armaduren harrizko estaldura urriaren eraginez, eraikinak pitzadura eta haustura arazoak zituen plakazko estaldura batzuetan; ondorioz, erorketa arrisku handia zegoen.

ULMA aurrefabrikatu arkitektonikoak aukeratzaren arrazoi giltzarria, ematen dituzten **soluzioak eta moldagarritasuna** izan dira. Kasu honetan, **proiektura egokitutako pieza espezifikoak** diseinatu eta fabrikatu dira; hala, soluzioa eman zaie eraikinaren akabera desberdinei

balkoi aurrealdeetan, horma atal itsuetan eta leiho azpaduretan.

Materialaren abantailarik aipagarrienak hauek dira: aldaezintasuna izozte eta desioz zikloetan eta ur xurgapenaren indizea, ia deuseza dena. Honi gehitzen badiogu piezek ez dutela armadurarik, esan dezakegu ULMA aurrefabrikatuak **lagungarriak direla eraikinaren osasun ona lutzatzeko**, eta emaitza bikainak ematen dituztela fatxadak zaharberitzeko lanetan.





## ULMA PACKAGING

### ULMA Packagingek termozigilatzen jarduteko planta berri bat inauguratu zuen Goribarren (Oñati)

BOST MILIOI EUROKO INBERTSIOA EGINDA, INSTALAZIOAK TERMOZIGILATZE JARDUERAREN BEHARREI ERANTZUTEN DIE, AZKEN LAU URTEETAN SALMENTAK LAUKOIZTU EGIN DIRELA KONTUAN HARTURIK.

ULMA Packagingek Oñatiko (Gipuzkoa) Goribar auzoan estreinatu berri den planta batera eraman du termozigilatze makinak fabrikatzeko jardura. Instalazioak daukan 5.000 metro karratuak bi altueratan banatuta daude – horietatik 4.000 m<sup>2</sup> produkzio gunerako dira eta gainerakoa bulegoetarako-, eta etorkizunean handitu nahi izanez gero, alboko 4.000 m<sup>2</sup> ere atxiki dakizkioke.

Bost milioi euroko inbertsioarekin egin den produkzio planta berri honek termozigilatze jardura handitu beharri erantzuten dio, azken lau urteetan laukoiztu egin dira eta salmentak; gainera, lekua egin nahi izan zaio produktu gama berriari, hots, termozigilatze makinak muntaketa pertsonalizatuan ardatzen denari. Jardura honek eta jardueraren

handitze azkarrak berekin ekarri du, baita ere, negozioan giza taldea nabarmen handitzea. Azken ekitaldian hirukoiztu egin dira termozigilatze jarduerarekin zuzenki lotutako lanpostuak, izan ere, 30etik 100 pertsona baino gehiago izatera pasatu dira. Langile horiek hemen banatzen dira: eskaintzen departamentua, makinak diseinatzeko bulego teknikoa, erosketen dibisioa eta materialak jasotzeko, makinak muntatzeko, bidalketak egiteko eta zerbitzuetarako gunek. Bestalde, hazkunde horri esker, lanpostu berriak sortu dira, zeharka, tokiko enpresa hornitzaileetan ere.

Planta berriak urtean 400 bat makina produzitzeko ahalmena dauka, eta badago aukera etorkizunean eraikuntza handitzeko ere, dagoeneko

erosita dagoen eta egungo ahalmena bikoiztea ahalbidetuko lukeen alboko eraikin bati esker. Produkzio gunean “lean” muntaketa lerroak instalatu dira termozigilatze makinak ekoizteko, bezeroei gehieneko balioa eskaintzeko produkzio fluxu bat sortzera bideratuta dagoen kudeaketa eredu batean oinarrituz eta ahalik eta baliabide gutxien erabiliz. Horrez gain, galdaragintza eta mantentze lanetarako tailer osagarri bat ere atondu da. Hori guztia, jasagarritasunean eta energia kontsumo irizpideetan oinarrituz eta teknologiarik berritzaileen aplikatuz, lortu ere, energetikoki efizientea den planta bat egitea lortu baita. Eraikuntza eta lekualdaketa denbora errekorrean egin dira, hau da, urtebete baino gutxiagoan.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### Alemaniar ingeniariatzako proiektua

Conveyor-en (giltza eskura erako proiektuak) diseinuan eta eraikuntzan nazioarteko liderra den alemaniar ingeniariatza batek ULMA Conveyor Componentsi esleitu dio Vietnamgo Long-Phuko zentral termoelektrikoa arrabolez hornitzeko kontratua.

EPC enpresa garrantzitsu honek globalki dihardu Amerika, Australia eta Europako merkatu estrategikoetan, eta proiektu honen esleipenarekin berretsi egiten da gero eta handiagoa dela ULMA Conveyor Componentsen jartzen den konfiantza erreferentziazko hornitzaile gisa.

Inbertsioak eutsiak diren eta proiektuak gauzatzea denboran atzeratu egiten den garai honetan, kontratu berriak lortzeko lehia eta eskakizunak ikaragarri gogorak dira. Hori dela eta, obra honen esleipena aukera eta erronka handia da ULMA Conveyor Componentsentzat bere hedapen eta dibertsifikazio planean sendotzeko, bai ingeniariaren merkatuan oro har bai ingeniariatza honetan bereziki.

## ULMA PIPING

### Line Blanks jardueraren egonkortzea

LINE BLANKSAK BRIDA ARTEAN JARTZEN DIREN BEREIZGAILUAK DIRA.

Jardura industrialari 2015. urtean ekin eta gero, 2017an 2,5 milioi euroren zifra gairatu zen salmentetan.

Line Blanksak brida artean jartzen diren bereizgailuak dira. Bereizgailuok aukera ematen dute, behararen arabera, fluxuari pasatzen uzteko edo ez uzteko. ULMA Piping fabrikatzen diren bridekin gertatzen denaz bestela, halako piezek soldaketa operazio bat behar dute. Hori dela eta, jardura hau oso lagungarria izan zaio ULMA Pipingi soldaduraren munduan esperientzia hartzeko (prozedurak, saiakuntza ez-suntsitzaileak, homologazioak, etab.).

2018. urte honetarako helburua jardura garatzen segitzea eta salmenten eboluzioa egonkortzea da.



## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

### Lehen nazioarteko proiektua ULMA Embedded Solutionsentzat

ULMA Embedded Solutionsek bere lehen nazioarteko proiektua lortu du Frantziako merkatuan. UESk Plan Estrategikoan ezarrita daukan lehen helburuetako bat bere produktuak eta zerbitzuak nazioarteko merkatuan kokatzea da. Frantzian proiektu hori lortzearekin, ULMA Embedded Solutionsek bere nazioarteko ibilbidea hasi du, eta datozen hilabeteetan herrialde europarretan bezero berriak lortzea espero du.

Proiektua, aldi berean, lehen sektoreran bideratutako lehendabiziko soluzioa da. Ardiak jezteko makinak komertzializatzen

## ULMA CONSTRUCTION

### Hotel berria Manhattango finantza distrituan

Azken hamarkadan, Nueva Yorkeko paisaia finantzarioa eraldatzen ari da eraikuntza berriekin.

110 metroko altuerarekin, 26 Ann Street eraikina World Trade Centeretik urrats batera dago, eta Fulton Street kaletik hurbil egiten ari den bizitegi eta saltokien proiekturik handienetako bat da. Eraikinean, bosgarren solairutik gora, hoteleko 298 logelak daude, eta beheko solairuetan, berriz, zerbitzuak eta merkataritza lokalak.

30 solairuetako lauzak enkofratzeko, bezeroak CC-4 aluminiozko enkofratu modularra aukeratu du. Jaisteko buruak dituenek, ezin hobea da segurtasun eskakizunak zorrotzak direneko lekuetan erabiltzeko. Materiala garaiz leheneratzea egonenez, ez da hain beharrezkoa izan

ekipoak obran edukitzea eta garabia gutxiago erabili behar izan da.

Muntaketan errendimenduak oso handiak izan dira; izan ere, elementuan zoruan instalatzen dira eta, gainera, oso elementu arinak dira. Egurrezko taula kontraxapatuaren erabilera txikiagoa izan da, panelean bertan txertatuta egon baita. Abantaila handia da hori laneko gunek txikiak direnean.

**ULMA soluzio integralak bezeroaren premiak ase ditu, hornei eta lauzei dagokienez.** ALUPROP Aluminiozko eskorek lau lan mailari eta CC-4 enkofratuari eutsi ahal izan diete Enkofratu modular arineko panelak zutabeei, hornei, habe txertatuei, igogailu zuloei eta zapatei forma emateko erabili dira.



ULMA Embedded Solutionsentzat proiektuaren irudi bat.

ibilbidea hasten duelako, eta, bestetik, nekazaritza eta abeltzaintzarako “smart” teknologia eta aplikazioen garapenean sartuko delako lehen aldiz.



ULMA Embedded Solutionsentzat proiektuaren irudi bat.

eta garatzen dituen enpresa bat da UESrekin harremanetan jarri dena, bere produktuei funtzionaltasuna eta eraginkortasuna gaineratzeko.

Proiektua 2 fasetan garatuko da. Lehen fasean lortutako esne kopurua eta kalitatea neurtzeko sistema adimentsu bat ezarriko zaie jezteko makinei. Horretarako, ULMA Embedded Solutionsek software, hardware eta HMIz hornitutako sistema “smart” oso bat garatuko du. Datorren maiatzean lehen prototipoak jadanik martxan egongo dira azken erabiltzaileen instalazioetan.

Beraz, proiektua UESrentzako aukera bikoitza da, alde batetik, bere nazioarteko



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA fatxada aireztatuak Santanderreko UNEATLANTICO unibertsitate egoitza berrian

CARLOS GALIANO ARKITEKTOAREN ESKUTIK, UNIBERTSITATE EGOITZA BERRIAREN PROIEKTUAN PARTE HARTU DU ULMAK.

Egoitza, berez, **bi eraikinek** osatzen dute, **lau solairukoa bata eta seikoa bestea**. Pasabide batek lotzen ditu eraikinok. Egoitzak 340 ohe ditu guztira, 70 estudio eta 42 apartamentutan banatuta.

#### BI TESTURA, FATXADA AIREZTATUKO SOLUZIO BIKAIN BATERAKO

**Testura arbeltsua** eta VANGUARD gamako ura erabili dira. Lehenengo grafito gris kolorekoa da, zeina oso baliagarria izan baita "eraikinaren eta zoruaren arteko topaketari soluzioa emateko, izaera sendoa emanez"; bigarrena, berriz, kolore zurikoa da, "eraikinari **arintasun eta dinamismo handiagoa emateko**".

Ur testurak sortzen duen **efektu optiko** ikusgarriak **kolore batean tonalitate desberdinak** izatearen ilusioa gozarazten du. Izatez, kolore bakarra da, ur testuraren akaberari esker tonu desberdinen efektua lortzen duena eta uhinak norabide desberdinetan instalatuta dauzkana (bertikala, horizontala eta diagonal). "**Plakek fatxadan zeukaten kokaera aldatuta** bakarrik, eraikinari **dinamismoa** eman diogu; izan ere, eguzkiaren argiak duen kalitatearen eta intzidentziaren arabera, objektu bakarraren irudi desberdinak bistara ditzakegu. "Ikusgarria", adierazi



## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Constructionek BIKAIN ziurtagiriaren goi mailako zilarra eskuratu du

Bigarren aldia da BIKAIN ebaluatzaileen kluba osatzen duten kanpoko aditu kualifikatuek ULMA Constructioneko Oñatiko guneetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren ebaluaketa egin dutena. **ULMAk aurten lortutako emaitzak %70eko jauzi positiboa suposatzen du 2014an lortutako emaitzarekin alderatuta.**

Ebaluazio prozesua **euskararen sustapenaren aldeko dinamikaren indarguneak sendotzeko, zer hobetuak identifikatzeko eta etengabeko hobekuntza sustatzeko aukera eta laguntza** izan da ULMArentzat. Erakundearen irudia, bezeroekiko harremanak, barne-komunikazioa, pertsonen kudeaketa, kanpo-harremanak eta kudeaketa-sistema izan ziren, besteak beste, aztertutako eremuak.

BIKAIN euskararen kalitatearen ziurtagiriaren goi mailako zilarra denon artean egindako lanaren eta ahaleginaren zoriarekin aitortza izan da ULMArentzat, baita hasitako bidetik aurrera gogotsu egiteko bultzada ere.

## ULMA HANDLING SYSTEMS

### PANSTAR Taldearen logistika sendotuta dago, ULMA Handling Systemsek landutako automatizazio proiektuari esker

PANSTAR enpresa taldea espezializaturik dago aurrez erretako ogiaren eta opil izoztuen fabrikazioan eta banaketan. Valentziako Enguerako instalazioetan, ULMA Handling Systemsek diseinatutako eta garatutako biltegi automatizatu bat dauka PANSTARek.

ULMA Handling Systemsek garatutako logistika barneko soluzioak badauka harrera sistema bat gai dena orduan 3 kamioik dakarten merkantzia hartzeko.

Harrera sistema hau **biltegitratze automatizatuko soluzioari** loturik dago

paleta bidezko fluxu handiko garraio lerroen bidez, eta 19.000 paletetik gorako ahalmena dauka. PANSTAR TALDEAREN biltegi adimenduna 33 metroko garaiera duten 4 Unit Load transjasogailuren bidez kudeatzen da. Transjasogailu bakoitzak, gainera, urkila bikoitzeko ateratze sistema bat dauka, eta horrek aukera ematen du bi paleta mugitzeko bai biltegi sarreran bai irteeran. Sistema gune desberdinetan banatzen da tenperaturaren arabera, zeina -24°C-tik 0°C-ra bitartean ibil daitekeen.

Gainera, biltegi automatikoa paletizazio

automatikoko zentroarekin konektatuta dago eta paletizazioa bukatutakoan, merkantzia automatikoki sartzen da biltegiaren.

Logistika barneko automatizazio proiektu integralari esker, **PANSTAR Taldeak biltegitratze ahalmena handitu du horretarako ahalik eta espaziorik txikiena erabiliz; era berean, karga/deskarga denborak laburtu ditu, eta kudeatutako prozesu guztietan eraginkortasuna handitu.**



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricola, otsaila azokarik azoka

ULMA Agricolak azokaz beteriko egutegia dauka 2018an. Joan den otsailean, nazioarteko bi ekitaldi garrantzitsutan egon zen.

Holaxe berretsi du ULMA Agricolak enpresa moduan daukan sendotasuna eta internazionalizazioaren alde egiten ari den apustua, bezeroengandik eta amaierako erabiltzaileengandik hurbil egoteko konpainiak egiten duen ahalegin etengabeaz gainera.

Hona hemen otsailerako hautatutako azokak: Berlingo Fruit Logistica azoka, otsailaren 7tik 9ra, eta FIMA azokaren 40. edizioa, Zaragozan otsailaren 20tik 24ra egin zena.

FRUIT LOGISTICAK argi utzi du azoka monografiko liderra dela barazki eta fruitu merkataritzaren globalari dagokionez. 80 herrialdek baino gehiagok erakutsi zieten beren eskaintza hitzordura agertu

ziren 77.000 bisitariei.

Bestalde, FIMA azokan 68 herrialdetako 1.500 enpresa erakusketari izan ziren, eta denen artean azken berrietasun teknikoaren eta nekazaritza sektoreko "ezagutzaren" "munduko erakusleho handia" bihurtu zuten Zaragozako azoka.

Azoka biotako standetan izan ziren ULMA Agricolako langileak oso sentsazio positiboekin itzuli dira, bai egindako harreman berriengatik, bai stand bisitatu duten bezeroek egindako ekarpen eta iradokizunengatik eta emandako zoriengatik.





## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### ULMA Orga Jasotzaileak negozioak martxan ditu jada telefono bidezko arretarako 900 doako lineak

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak doako telefono zenbaki batzuk jarri ditu bezeroen arretarako. Zehazki, bi telefono zenbaki dira: batetik, 900 840 450 zenbakia, informazio orokorreko galderei erantzuteko eta, bestetik, 900 926 242 zenbakia, Laguntza Teknikoko Zerbitzuarena.

Aurreko 902 lineak ordeztuko dituzten 900 doako lineez gain, negozioak kontsultak nahiz kudeaketak egiteko hainbat kanal ere jarri ditu bezero eta erabiltzaileen esku, hala nola bere webguneko kontsulta gune birtuala eta posta elektronikoa.

Doako zerbitzu berri hau plus bat da erabiltzaileentzat, eta bezeroaren arretarako ahalmen operatiboa hobetzen du, espezialista profesionalen esku dagoen komunikazio kanal azkar eta eraginkorra baita.



## ULMA PACKAGING

### Makina biltzaile bertikalei lotutako azken berrikuntzak sustatzeko ekitaldia Belgikan

ULMA Packagingen belgikar filialak ekitaldi bat antolatu zuen otsail bukaeran merkatuan horrenbesteko oihartzuna izaten ari diren makina biltzaile bertikalean egindako azken berrikuntzak bezeroen artean sustatzeko.

"ULMA's vertical bagging solutions" izenez antolatutako ekitaldian, bi ULMA makina biltzaile bertikalen bitartez, garapen nagusi biren berri eman zitzairen gonbidatuei. Garapen horiei esker, bezeroek errazago egingo dituzte beren eguneroko operazioak, eta nabarmen aurreztuko dute hala garraioan nola denboran.

Alde batetik, **TIGHT-BAGTM sistema burutsua erakutsi zen. Sistema hau garatu da poltsa itxi aurretik airea ateratzeko; hala, optimizatu egiten da poltsen bolumena, eta garraio kaxa bakoitzeko poltsak %15 areagotzea lortzen da.**

Batez ere, produktu izoztuetara bideratuta dagoen sistema honek, bolumena optimizatzeari dagokionez, poltsak zulatzen dituzten sistema

tradizionalen onura berberak ditu, baina kasu honetan, zulotxorik ez dagoenez, ez dago produktua kutsatzeko arriskurik. Horrez gain, badu beste bereizgarri bat ere: atera nahi den aire kantitatea langilearen kontrol pantailatik doitu daiteke.

Bigarren makina biltzaileak, berriz, **hosto arineko belar eta entsaladak ontziratzen dituzten sistema iraultzailea** darama, zeinaren bidez ekoizleek denbora eta dirua aurrezten

duzen, ontziratze prozesuan eskuz egin beharreko lana minimizatzearekin batera.

Zuzenean egindako erakustaldiez gainera, aurrez egindako hitzaldi batean, argi azaldu zen zein diren bi sistema hauen abantailak, eta produkzio prozesuetan kostuak murrizteko dagoeneko ULMA Packagingen konfiantza jarri duten erreferentziako bezeroen zerrenda aurkeztu zen.



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricolaren instalazio berriak Espainia hego-ekialdean

Espainia hego-ekialdeko ekoizle garrantzitsuenek ULMA Agricolan jartzen dute konfiantza oraindik ere proiektu handiak instalatzeko orduan.

Oraintsu, ULMA Agricolak 3 hektarea inguruko beste instalazio bat muntatu du. Oraingo honetan, tokiko eraldaketarako nekazaritza sozietate bateko kide batentzat izan da instalazioa. Kide horrek hainbat barazki komertzializatzen dihardu.

Proiektua G8 eta G9 nabeen konbinazio bat da, eta lursail erabilgarria ahalik eta gehien aprobetxatzea du helburu. Instalazioak plastikozko estaldura bat dauka, baita aireztapen zenitalak, albokoak eta aurrekoak ere, barnean airea behar beste berritu dadin.

Proiektua Arco Mediterraneoan gauzatu da eta ez da teknifikazio maila handirik erabili behar izan klima ezin egokiagoa baita barazkiak landatzeko. Hala ere, badauka parrilla eta beso sistema bat egitura eta sarrerako ate motorizatuak indartzeko, zabalera bereziko atek baitira, karga eta deskarga gunerako sarbide.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### ULMA Conveyorrek bere arrabol motorizatu berriak aurkeztu ditu AEBetan



**SISTEMAK INFORMAZIOA EMATEN DU ERRODAMENDUEN PARAMETRO TEKNIKOEI BURUZ; GAINERA, ARRABOLEN ESTATUS OROKORRA ERAKUSTEN DU, BAITA HURRENGO MANTENTZE GELDIALDIAN ORDEZTEA GOMENDATZEN DIREN ARRABOLEN KOKAPENA ERE.**

Soltean datorren materiala manipulatzeko teknologia asko garatu da. Uhal garraiatzaileetako arrabolak, behin bizialdiaren amaierara iritsitakoan, aldatu egin behar dira, beste kontsumigarri batzuk bezala. Arrabol kaltetuak detektatzeko moduak modu, eskulanaren erabilera handia izaten da beti, eta ez oso zehatza. Izan ere, arrabolak hondatu egiten badira aldatu aurretik, ondorioak larriak izan daitezke, eta kostu gehigarriak nahiz galera operazionalak ekar ditzakete. Zer esanik ez, aplikaziorik kritikoenetan, hori gertatzea amesgaiztoa izan daiteke mantentze lanetako departamentuentzat.

**ULMA Conveyor Componentsen I+Gko departamentuak 2012 hasieratik jardun du arrabol motorizatu eta kudeaketarako software baten garapenean,** bezeroek beren bulegotik arrabolak kudeatu eta kontrolatu ahal izateko. Sistemak informazioa ematen du errodamenduen parametro teknikoari buruz; gainera, arrabolen estatus orokorra erakusten du, baita hurrengo mantentze geldialdian ordezteko gomendatzen diren arrabolen kokapena ere. Hala, mantentze lanetako

taldeak aurrez zehaztu dezake ordeztu beharreko arrabol kopurua, eta arrabol kaltetuetara zuzenean jo eta aldatu egin ditzake. Hori hala, aurrezpen handiak egin ahal dira geldialdi eta mantentze denboretan, zuzeneko eskulan premietan, ordeztu piezen stockean eta ezusteko arazoak ekiditeko orduan. Azken finean, uhal garraiatzaileetako arraboletarako prebentziozko mantentze sistema batez ari gara.

**2018ko otsailaren 27an, 2018 SME Annual Conference & Expo (Minneapolis, MN – AEB, 2018/02/25-28)** leku paregabean, ULMA Conveyor Componentsek honako hauek aurkeztu zituen lehen aldiz munduan: bere arrabol motorizatuaren teknologia, mantentze lanak kudeatzeko softwarea eta baita mundu guztiko instalazioetarako zuzeneko sarbidea ere. Aurkezpenean, sistemaren ezaugarriak, aplikazio posibleak eta abantaila nagusiak eman ziren ezagutzera.



## ULMA CONSTRUCTION

### Valentziako Arte eta Zientzien Hirian kokatua dagoen Agora eraikinaren birgaikuntza

ULMA CONSTRUCTION IZAN DA ALDAMIO SOLUZIOEN HORNITZAILE BAKARRA. EGINDAKO LANA ZERA IZAN DA: BRIO NORABIDE ANITZEKO ALDAMIO SISTEMAREN BIDEZ ERAIKINA ESTALTZEA, 4.247 M<sup>2</sup>-TIK GORA BIRGAITZEKO.



Santiago Calatrava arkitekto eta ingeniariak diseinatutako Agora eraikina leku gardena eta multifuntzionala da, eta oinplano eliptiko zorrotza dauka.

Bere estalki mugikorra edo "brise-soleil" deiturikoa da eraikinaren elementurik ezaugarriena. Metalezko 163 xaflek osatuta dago estalki hori, eta xafla horiek 31 metroko luzera dute estalkiaren erdiko aldean eta 15 m artekoa estalkiaren muturretan.

ULMA Construction aldazio soluzioen hornitzaile bakarra izan da. Eraikina BRIO aldazio multidirekzionalerik estaltzea izan da lana, 4.247 m<sup>2</sup> baino gehiago birgaitzeko. Geometriak aplikazioa zaildu du, izan ere, eraikinak elipse forma du eta malda desberdina altuera bakoitzean.

ULMAK BIM metodologia aplikatu du proiektu honetan. Metodologia horrek eskatzen du proiektuaren informazioa integratzea eta gestionatzea, eta proiektuaren aktore guztiek informazio hori erabiltzeko aukera ematen du. Kontrol eta efizientzia handiagoak dira metodologiaren emaitzak.

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA drainatze sistemak "World of Concrete 2018" nazioarteko azokan



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS BIGARREN ALDIZ JARRAIAN IZAN DA LAS VEGASKO (AEB) WOC AZOKAN.

Urtarrilaren 23tik 26ra bitartean, hormigoien segmentuaren inguruko ekitaldirik nabarmenena egin zen Estatu Batuetan: Las Vegasko World of Concrete (hormigoizko mundua) azoka. Urtero antolatzen den ekitaldi hau **sektorearen adierazgarri argia** da, non **hormigoien inguruko joera nagusiak** biltzen diren. Aurten, erakusketan 67.000 metro karratutik gorako eremu batean egin da. 1.500 enpresa erakusketari baino gehiago egon dira, tartean ULMA, erdiko hallean. Edizio honetan hiru izan dira aurkeztu diren drainatze soluzioak: **F, MultiV eta Kompaqdrain sistemak.**

## ULMA PIPING

### ULMA Pipingek ONGC indiar erraldoiaren homologazioa eskuratu du

2011n lehen harremanak egin ondoren eta kualifikazio prozesu zorrotz baten ostean, homologazioa arrakastaz egin da. Alde batetik, material herdoilgaitz eta Duplex materialeko bridetarako homologazioa egin da eta, datozen hiletan, karbono altzairuaren homologazioa amaituko da.

ONGC da Indiako petrolio/gas konpainiarik handiena. Petrolioari dagokionez, berea da Indiako

produktzioaren %77 baino gehiago, eta gasari dagokionez, berriz, %62 (gutxi gorabehera herrialdeko kontsumoaren %30).

Konpainia Indiako Gobernuarena da (konpainiaren %68,94ren jabetza dauka) eta negozio nagusia petrolio eta gas aktiboen esplorazio, garapen eta produktioa da, bai Indian bai atzerrian (17 herrialdetan partaidetzak ditu 37 petrolio eta gas aktibotan, eta Indiako petrolio eta

gas naturalaren produktioaren %12,9 jartzen du).

Oil&Gas sektorean munduko 11.a izanik, homologazio honek aukera emango digu, zalantza barik, gure negozioa handitzeko, bai Indian bai ONGCk diharduen gainerako herrialdeetan.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### PICK&PLACE europar partzuergoa ULMA Handling Systemsen

Urte hasieran, ULMA Handling Systemsek gidatzen duen Pick&Place europar proiektuari buruzko kick off bilera egin zen Oñatin.

Europak finantzaturako proiektu honek picking sistema malgu unitario bat ebaluatzen du. Sistema hori, berez, banaketa zentroetan eskariak prestatzen dituzten lankidetzak inguruneetarako dago diseinaturik. "Prest gaude pertsona-makina lankidetzak ingurune baterako INDUSTRY 4.0 iraultza berrirako, non robotikari esker, gehieneko malgutasuna eta segurtasun bermeak eduki daitezkeen, eta picking prozesuetan kostuak nabarmen murriz daitezkeen".

Proiektuak 3 urte iraungo du eta helburua izango da picking automatikoan eboluzionatzea.

Bileran honako hauek egon ziren: Fraunhofer (Alemania), CNR (Italiako Ikerketa Zentro Nazionala), Tofas (Turkiako automobilgintzako fabrikatzailea),

MONDRAGON Assemblyko kideak, Tekniker eta ULMA Handling Systemseko ordezkariak.





## ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotz-zorrotzak; hola erakusten dute talentuarekin eta esfortzuarekin horma guztiak botatzen direla.

# Mahasti artean...

Jon Urzelai, ULMA Piping

**Jon Urzelai "Belas" area managerra da ULMA Piping duela bi urtetik hona. Lan bizi baserri bizitzarekin uztartzen du, txakolinarekin batez ere.**

Lana, adorea, kultura, zuztarrak, natura... horiek dira bururatzen zaizkigun ideia batzuk baserri bizitzaz berba egiten dugunean. Familia lanak eta ahaleginak markatutako bizitza.

Holakoa da Jon Urzelairen bizitza: ULMA Pipingetik baserrira eta berriro ere ekin. Beti irribarrea ahoan, pozik eta ilusioz beterik, dena tamaina berean. Horixe da bere errealitatea, naturaz betetako errealitatea eta, duela 11 urtetik hona, mahastiz inguratuta.

"Baserrian bizi garenok gure etxea eta landa giroko bizitza maite ditugu. Batzuk arineketan egitera joaten dira. Ni, berriz, mahastira joaten naiz. Deskonektatzen laguntzen dit", esan digu.

2007. urtean hasi zen txakolina zarata egiten jendearen eta kritikaren artean. Orduantxe erabaki zuen Jonek, bere familiaren laguntzaz, 300 landarez osatutako mahasti bat jartzea baserri ondoan. Handik urtebetera, "Getariako txakolina" jatorri deitura Gipuzkoa osora hedatu zela aprobetxatuz, hektarea oso bat hartzeraino handitu zuen sail landatua. Geroago, 2010. urtean, berriro ere handitu zuen saila, oraingoan hektarea bat eta laurden hartzeraino.

Gaur egun 2,2 hektareako mahasti saila dauka Jonek guztira bere baserriaren inguruan; eta hektarea bakoitzeko 3.473 landare direla kontuan hartuta, 7.638 landare dira guztira. Bada zerbait! Eta

etxearen eta mahastiaren artean, lorategi oparoa: japoniar astigar batzuk, magnoliak, haritzak, pagoak, kameliak, urkiak, etab. Udako berdeak koloreen festari egiten dio lekua udazkenean.

"Betidanik gustatu izan zaizkit landareak, bai fruitu landareak bai apaingarriak. Ardoaren munduak ere erakartzen ninduen; horregatik animatu nintzen. Oraingo ikuspegitik begiratuta, egia esan, erabaki zoro xamarra izan zen, baina kontent nago", ziurtatu du.

"Oso inbertsio handia da eta, gainera, lehen lau urteetan ez duzu ezer biltzen. ULMAtik irten eta traktorea martxan jartzea hamar minutuko kontua da. Etxetik hain gertu lan egitea pagotxa da", ziurtatu du Jonek.

### ETA ORAIN, TXAKOLIN MARKA PROPIOA

laztik, Jonek BELASKUA izeneko bere txakolin markara bideratzen du uztaren zati bat. Txakolin honek iritzi ona jaso du kritikaren aldetik. Hala ere, Urzelai esan digunez, "Mahastia eta txakolina zaletasuna dira niretzat, eta hala izaten jarraituko dute. Baserriaren larrinean familiarekin eta lagunekin jarri eta norberaren txakolina dastatzeak ez dauka parekorik".

Etorkizunari dagokionez, Jonek [www.belaskua.com](http://www.belaskua.com) webgunea plazaratu berri du. Bertan, bere txakolinaren berri emateaz gainera, baserriaren historia kontatzen du, 500 bat urte dela eraiki zenetik hona.

**Luze bizi bitez txakolina eta baserria!**

Eskumako aldean, Jon bere traktorearen ondoan Belaskua txakolin botilarekin; lerro hauen >> azpian, baserriaren eta mahastien bista panoramikoak.



Baserriaren larrinean familiarekin eta lagunekin jarri eta norberaren txakolina dastatzeak ez dauka parekorik



# Talentuaren kudeaketa: erronka berri bat ULMArentzat

Gaur egun, giza baliabideetako gure departamentu asko erabat murgilduta daude denok kezkatzen eta arduratzen gaituen zeregin batean, hau da: talentua erakarri eta atxikitzea. Hori dela eta, gure Negozioetako giza baliabideetako arduradunak elkarriketatzeari ekingo diogu, beren iritzia agertu eta konta diezaguten nola ari diren bizitzen, gure taldean, oro har, eta beren negozioan, bereziki, alde batetik, talentua erakarri eta gurera atxiki beharra, eta, bestetik, gure bazkide eta langileen artean lehendik dagoen talentua garatu beharra.



**“ULMA barruan dagoen talentua indartu behar dugu, eta talentu hori bizigarri berriarekin uztartu, aurre egin beharreko erronkei erantzun ahal izateko.”**

AITOR GALDOS.  
Pertsonen zuzendaria ULMA  
Constructionen

**“ Aztertzen gabiltzan gaiari dagokionez, une honetan zelakoa da ULMA Constructionek daukan premia? Gaur egun lehentasuna da Negozioarentzat? ”**

*Bai, hala da, lehentasuna da. 200 pertsona baino gehiago gabiltza proiektu hau aurrera ateratzen, eta gure misioan jasota geratu da proiektu sozioenpresarialean pertsona gogobete eta garatuak gura ditugula. Hori dela eta, pertsonen garapena, profesional onenen kaptazioa eta talentuaren kudeaketa gure DNA n daramatzagu. Gure erronkak etengabe dabilta eraldatzen, eta ULMA Constructionen gauden pertsonok, eta gurera etorriko direnek, prestaturik egon behar dugu erronka horiei erantzuteko, gure Kooperatibaren misioarekin bat eginik.*

**“ Talentua da jarduera bat bikain ikasi edo lantzeko daukagun ahalmena eta nolakotasuna; baina, zure ustez, badakigu enpresako pertsona bakoitzaren nolakotasunak identifikatzen eta indartzen? Nondik uste duzu abiatu behar duela identifikazio horrek, kooperatibatik edo gure ingurune akademikitik? ”**

*Proiektuan dauden pertsonen talentua identifikatu eta indartzea enpresaren erantzukizuna da, ULMArena, gure kasuan. Abiatu behar du langile-bazkidearen kezkatik, arduradunak egiten duen segimendutik eta pertsonen departamentuaren zereginetik. Departamentu horrek ezarri behar ditu behar diren prozesuak hori gauza dadin, eta, era berean, bermatu behar du dena ez dela asmo deklarazio huts batera mugatuko.*

*Horrekin ez dut esan nahi ingurune akademikoak dienetik urrun egon behar dugunik, guztiz kontrakoa baizik. Ingurune akademikoari itsatsita egon behar dugu, enpresok aurre egin beharreko premia eta erronkak zein diren argi eta garbi transmititzeko. Era berean, bertatik bertara*

*jakin behar dugu zein diren belaunaldi berriak bultzatzen dituzten motibazioak, lan munduan txertatzeari eta ondorengo garapenari dagokienez.*

**“ Zein balorazio egiten duzu ULMA Taldeak arlo honetan egiten duen ekarpenaz? ”**

*Uste dut ULMA Taldea egiten dabilen ekarpena oso positiboa dela, eta gauden lekuan gaudela, bertakoek ekarpen hori aintzat hartzen dutelakoan nago. Oñatin eta Debagoienean daukagun inpaktuaz ez dago dudarik; gauza bera esan daiteke probintzian eta Euskal Herrian daukagunaz. Eta gauza bera esan genezake Estatuan eta presente gauden herrialde guztietan daukagun ezarpenaz ere. Pertsonen garapena, garapen profesionala eta pertsonala eskutik helduta doaz ULMA n; ziur gaude horretaz, eta horixe da gure apustu nagusia, hots, ULMA barruan dagoen talentua indartzea, bizigarri berriarekin batera aurrean daukagun erronkei erantzutea helburu.*

**“ Antzematen duzu sintoniarik gainerako Negozioekin? ”**

*ULMA Taldeko negozio guztiak gaude sintonian. Errealitate eta behar desberdinak edukiagatik, helburu berbera daukagu talentuaren kudeaketari dagokion arloan. ULMA Taldeko negozio desberdinetako zuzendaritzak, organoak eta pertsonen departamentuak analisiak partekatzen dituzte, eta bide bera urratzen gabiltza. Eta horretarako, marka enplegatzailea indartzen dugu, Taldeko negozioen artean sustapenak ahalbidetzen ditugu, proiektu handi hau osatzen dugun ia 5.000 pertsonen artean dagoen talentua garatzearen alde eginez.*

**“ Itxura denez, negozio estrategia on bat edukitzearekin ez dugu nahikoa; horrekin batera, marka enplegatzaile gisa definituko gaituen**

**marketin eta komunikazio estrategia bat ere eduki beharra dago. ULMA Constructionen, zelan gurako zenukete zuen xede publikoak zuek ikustea arlo honetan? ”**

*Eraikuntzaren sektorean lan egiten duen proiektu sozioenpresarial gisa. Lanerako espazio komun gisa, non pertsonak teknikoki eta gizaki moduan garatu ahalko diren. Defendatzen ditugun balioak ezaugarri nagusi izango dituen eta baliook biziko dituen enpresa gisa. Gurako nuke bertan dihardugunok lehiatzeko joko zelai batean gai izatea, non bolumenagatik, askotan kanpoan gera gaitezkeen, baina txikiak handia garaitu dezakeela konbentziturak, “asmoz eta jakitez”. Eta hori gure sorburuan dago, eta goraka datorren balioa da oraindik, bai lehiatzeko bai gurea bezalako proiektu sozioenpresarialetan talentua erakartzeko. Euskal komunitatea, aberastasun material gutxirekin, baina auzolanean oinarritutako komunitate zentzu indartsuarekin gai izan da planetako beste inon parekorik ez duen giza eta ekonomia garapena sortzeko, eta aurkezpen gutun hori, nire ustez, gaur egun oso erakargarria da, bai Proiektuan gabiltzanontzat bai etor daitezkeenentzat.*

**“ Bukatzeko, zure ustean gurean lehendik daukagun talentua sortu eta garatzearen alde egin beharko genuke, ala kanpoko talentua erakartzearen alde? Edo kontua oreka topatzea da? ”**

*Bertutea orekan dagoelakoan nago. Jaramon egin behar zaio etxean daukagun talentuari, talentu asko baitago, baina ezin diogu beste enpresetatik, unibertitate sektoretik, lanbide heziketatik eta abarretik datorren talentuari ezikusi egin ere.*

*Gure negozioetako pertsonak bultzatu, prestatu eta sustatu behar ditugu eta, era berean, kapazak izan behar dugu ULMA n lan egiteak daukan erakargarritasuna eta proiektzioa transmititzeko.*



# News korporatibo berria

## ULMAk zerbait esan nahi dizu

ULMAko informazio buletin berria hilero banatzen den argitalpen digitala da, eta gutako bakoitzak ULMA n daukan posta elektronikoaren bitartez zabaltzen da. ULMAko posta elektroniko helbiderik ez duten bazkide eta langileek idatziz baimendu beharko dute euren e-posta pertsonalean jaso nahi dutela. Bi eredu daude, elebiduna gure Euskadiko eremu geografikorako, eta gaztelaniatzko bertsioa, Espainiako delegazioetarako

Lehen bidalketatik jasotako datuak:

1.655 bidalketa

849 zabaltze  
(% 51,2)

520 klik  
(% 32)



Zer iruditzen zaizu jaso duzun lehen Newsa eta zein komunikazio kanal erabiltzen duzu normalean ULMAko gaiez informatzeko?



IRATI GOITIA

ULMA Construction

"Gehien erabiltzen ditudan kanalak Begira aldizkaria eta buletinak dira. Horrez gain, kontseilutxoak izaten ditugu, gure Negozioaren gaiez informatzeko kanal nagusi gisa.

**ULMA Taldearen informazio buletin berria asko gustatu zait, oso itxura ona dauka. E-postan informazio mota hau jasotzea inon sartzea baino askoz erosoa da. Portaldek, adibidez, erabiltzailearen aldeko esfortzua eskatzen du, zeu zara informazioa bilatzeko propio sartu behar duzuna, eta nik behintzat, ez daukat ohiturarik.**

**Newsberria ULMAk eta Fundazioak laguntzen dituen proiektuekin lotutako informazioa aurkitzea ere gustatuko litzaidake, adibidez."**



AINHOA ARANBURU

ULMA Handling Systems

"UHsko langileok ordenagailua daukagu lan tresna nagusizat. Hori dela eta, jasotzen ditugun komunikazio ia guztiak e-postaz izaten dira. Paperak ia ez dauka presentziarik gure jakinarazpenetan. E-postaz gain, kontseilutxoak edo zuzendaritzaren hitzaldi informatiboak ere kanal oso praktikoak dira. Nik Portalde erabiltzen dut eguneroko lan tresna moduan eta, noizean behin, zozketa garrantzitsuren bat ikusten badut, izena ematen dut.

**ULMA Taldeak argitaratutako buletin berria ideia ona iruditzen zait. Egia da edukiren bat bikoiztu egiten dela Portalde ere agertzen delako (zozketak, adibidez), baina e-postaz jasotzea abantaila iruditzen zait, horrela arintasuna eta azkartasuna irabazten dugu."**



MIGUEL PASTOR

ULMA Conveyor Components

"ULMArekin erlazioatutako gaiez informatzeko gehien erabiltzen ditudan kanalak Begira eta sare sozialak dira, batez ere Twitter eta LinkedIn. Kanal horietan beti aurkitzen dut azoka, jardunaldi sozial eta abarren gainera informazioa. Gainera, maiztasuneguneratzen diren kanalak dira. Portalde ere erabiltzen dut, izaera sozialeko gaiak, arauak eta abar begiratzeko, baina ia beti laneko beharengatik.

**ULMAko informazio buletin berria oso ideia ona dela iruditzen zait. E-postan jasotzeak eta online bidezko kanala izateak nahi dudanean ikusteko aukera ematen dit, esfortzurik egin barik. Bertan, izaera sozialeko albisteak, jardunaldiak, zozketak, araudiak, Negozioetako albiste garrantzitsuak, etab. aurkitzea gustatuko litzaidake."**



Atal honetan, zure Fundazioak –ULMA osatzen dugun pertsonekin batera– egiten duen jardueraren berri emango dizugu, izan ere, horixe da gizartea eredu humanizatuago eta sostengarriago batera eramateko hartua dugun konpromisoa bideratzeko daukagun modua.

## Heldu gara Hondurasera!

Uztailan ULMAn jaso genituen sukalde tresnak iritsi dira Hondurasera jada. 8.000 kilometro baino gehiago egin zuten itsasontziz helburu zuten portura iristeko, eta bertan atxikita eduki zituzten urte bukaeran Hondurasek bizi izan zituen kontu politikoak tarteko. Luzea izan da prozesua, baina merezi izan du.



Argazki honen bidez, emakume batzuek eskerrona adierazi nahi dizute entrega hau ahalbidetu duzuenoi.

ULMA Fundazioa harro dago zure lankidetzarekin lortutakoaz. Eskerrik asko!



### APIRILEAN GAZTELANIAZ IDATZITAKO LIBURU ETA IPUINAK BILDUKO DITUGU

Oraingo honetan, **gaztelaniaz idatzitako liburu eta ipuinak** bidali nahi ditugu Hondurasko ikastetxeetara.

Haur eta nagusiendako irakurgaiak: testu liburuak, literatura orokorrean, aldizkari zientifiko eta teknikoak, nobelak, entziklopediak, hiztegiak...

**Seguru badaukazula ekartzeko zerbait!**

Bilketa guneak **apirilaren 30era arte** izango dituzue zure kooperatiban.

Maiatzean beste edukiontzi bat aterako da, eta berriro ere ULMAn elkartzarekin bete nahi dugu.

Zalantzarik badaukazu, jarri harremanetan ULMA fundazioarekin: [ulmafundazioa@ulma.com](mailto:ulmafundazioa@ulma.com)

## ULMAk eta Mundukidek Mexikorako bidaiaria solidario bat antolatu zuten

Joan den uztailera arte ULMA Orgetako finantza zuzendaria izan den Izaskun Vildarrazek Mexikora bidaiatu zuen abuztutik azarora bitartean bertako proiektu kooperatiboetan kolaboratzeko.

Kudeaketa eta antolaketa kooperatiboaren kontzeptuei buruzko prestakuntza eman du, eta analisi eta diagnostikoak egin ditu, martxan dauden proiektuak hobetzeko gomendioak emateaz gain. Turismo, garraio, ogigintza, gozogintza, elikadura eta abarrek lotutako proiektuak izan dira Costa Oaxacan, Puerto Escondidon eta Huatulcon. Gainera, Mondragon eredu kooperatiboari eta ekonomia solidarioari buruzko hitzaldiak ere eman zituen eskola eta unibertsitateetan. Gai horiek interesa piztu zuten.

Itzulitakoan Izaskunek kontatu digunez:

*“Zailtasun larriak dauzkate negozioak martxan jartzeko, batetik, kudeaketa kooperatiboaz ezer gutxi edo batere ez dakitelako, eta, bestetik, ezagutzen ez dituzten merkatuei aurre egiteko zailtasun handiak daukatelako”.*

Distantziatik kolaboratzen jarraitzeko bidea irekita utzi du, eta lerro hauek aprobetxatu nahi ditu zuek ere halako esperientzia solidario bat bizitzera animatzeko. **“Lagundu izanaren eta zure ekarpena egin izanaren sentsazio atsegina uzten dizu, eta horrek soberan konpentsatzen du egindako ahalegina”.**



## #keinujasangarria

### PLASTIKOAREN KONTSUMOA

ULMAko negozio batzuek plastikoaren kontsumoa murriztu dute ura edateko beirazko botilak erabiliz. Gainera, bilera gela guztietan pitxerrak jarri dira iturriko urez bete daitezzen.

**Eta plastikozko 5.000 botila gutxiago dira urtean!**

Kafe makinetan ere plastikoaren kontsumoa murriztu nahi dugu: Bidebarri kafe hornitzailearekin adostutako akordio bati esker, plastikozko ontzirik kontsumitzen ez baduzu, prezio hobea izango dugu. Ekarri zure edalontzia eta lagundu ingurumena zaintzen. **Badakizu ULMAn plastikozko 3.000 ontzi baino gehiago kontsumitzen ditugula egunean kafea hartzeko?**



### BIDEZKO MERKATARITZA

Kontuan hartuta Bidebarri lan egiten duela gizartean baztertuta gelditzeko arriskuan dauden kolektiboak lan munduan txertatzeko, aipatutako akordioan bertan **bidezko merkataritzako kafearen alde** egingo dugu ULMAn.

Bidezko merkataritzaren zigiluak bermatzen ditu baldintza eta soldata duinak kafea ekoizten duten kooperatibentzat, ingurumenarekiko begirunea, haur esplotaziorik eza, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta kalitatezko kafea. Gure helburu sozialak bat datoz %100ean bidezko merkataritzaren eta Bidebarriren helburuekin. Eta aldatzen laguntzeko: **aurreko kafe markarekin zeneukan prezio bera edukiko duzu, baldin eta zure edalontzia ekarri eta plastikozko ontzirik kontsumitzen ez baduzu.**



### TOKIKO MERKATARITZA

**Oñatiko dendak sustatu eta banaketa garraio elektriko bidez egitea bultzatu nahi dugu, Oñati berdeago eta sostengarriago batez gozaten laguntzeko.**


Orain tokiko merkataritza klik batean daukazu [www.bertanerosi.com](http://www.bertanerosi.com) webgunearen bitartez, ULMAk eta Oñatiko Udalak babesten duten egitasmo honi esker. Hori hala, zure eskaria egitean “ULMA” kodea sartuz gero, ULMAn egin beharreko entregak doanekoak izango dira uztailera arte. Sartu webgunean eta jaso ezazu zure eskaria lanean eta ezin erosoago. Hemen duzu informazio guztia: [www.begira.ulma.com](http://www.begira.ulma.com)



## ULMAN jasangarritasunaren alde egiten jarraitzen dugu...



## Keinu bat iraganari



## JJEIP produktuak

70eko hamarkadako marrazki bitxietan JJEIP markako -gaur egun ULMA Construction eta ULMA Agricola- negutegiak eta aldarmioak ikusi daitezke.

Zelan aldatu diren garaiak!



## ERRETIROAK: 2018ko urtarrilak 1 - martxoak 31

José Ramón Ibbabe



Susana Unzurrunzaga



Luís Zumalde



Ramón Martín



Eli Anduaga



Andrés Zubiagirre



Encarnación Salinas



Joseba Izagirre



Jose María Guridi



José Enrique Jausoro



Juan Antonio Agiriano



José A. Markina



Eskerrik asko eta gozatu!

## Zorionak

ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK;

Beti bezala, iradokizunetarako Postontzia ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak bidaltzeko;

ULMA Taldea. Departamentu Zentralak.  
Garagaltza Auzoa 51 - 22 p.k.  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
Erref. Begira. Emaila: begira@ulma.com





170 bideo inguru  
12.813 minutu ikusita 2017an

**Youtube**

7.087 pertsonak  
jarraitzen gaituzte

**Linkedin**

**BEGIRA  
OnLine**

[www.begira.ulma.com](http://www.begira.ulma.com)

13.664  
bisita urtean

**Flickr**

2.179 argazki

**Twitter**

2.031 jarraitzaile ditugu

<http://portalde.ulma.com>

**18.228**  
bisita urtean